

MONGONGO DASSANZA

Txomin Peillen

Liburuxka honen lau kopietarik hiru atzeman ditut Mongongo Dassanza izeneko barberu eta botikari lapurtar batek egin albaitaritzaz lan batean. Albaitaritzako lan baten kopiak dira.

Nor zen Mongongo Dassanza?

Hamazazpigarren mendean, Donibane Lohizunen erremedio saltegia zuen. 1645etik goiti Donibaneko bataio eta ehortzeta liburuetan agertzen da. 1711. urtean hil zen. Ofizioz barberu eta botikaria zen.

Zein dira kopiak?

Lau kopiak, Iparraldeko lau euskara suertetan eman dira:

1.a Baigorriko idazlana

Pierre Nérée Dassancek 1905ean Baionan inprimarazi zituen 30en bat ale, gero Daranatzek *Revista Internacional de Estudios Vascos* horretan, 1927an ezagutzen ez zuen gaiaz trufatu, baita Donibane Lohizuneko originala jatorrizkoa behe nafarreraz idatzia zela izkiriatu, Mongongok diolarik lapurtarrentzat egin duela. Daranatzek bigarren aldikoz gaizki publikatu testua da Baigorriko laborari baten eskuetan omen zena, baina argi dago Baigorriko euskarara kanbiatua izan dela. Hain zuzen ez dakigu zer urtetako kopia den. Ez da kopia osoa eta ez da ona nahiz dioen beste batzuk txarrago direla (inprimatzeak ez du hobetzen gaizki irakurria).

2.a Barkoxeko idazlana

Barkoxekoa Jean Pierre Peillen Barkoxekoak frantses iraultza baino lehen hemezortzigarren mendeko zubereraz kopiatu du. Gizon hori Barkoxeko eskolatu bat zen, Iraultza denboran "capitaine de la Garde Nationale" izanen dena. Ez da kopia osoa, lehenbiziko planak urratuak izan baitira. Barkoxe Peilleneneko azken nagusi zen Jean, Pierre Chabalgoity zenak eman zidan.

3.a Amikuzeko idazlana

Amikuzekoa Jaureguiberry batek egina da, 1891. urtean; hango euskararen emana da *ü* eta *u* bereiziz eta hiztegiaren aldetik Barkoxekotik hurbilena. Parisko *Bibliothèque Nationale*an dago.

4.a Garaziko idazlana

Garazikoa da Benat Goihetche Donibane Garazin euskarazko errejent batek 1830. urtean koptatua. Hau da hoberena alde guzietarik lapurteraz baita. Haranburu garaztar errejent zenari zor diot fotokopia; kopia haren familiak du.

Nondik atera, nondik jalgi zituen Dassanzak bere jakitateak?

Berak aitortzen du Estienne eta Liébeault-en *La Maison Rustique* liburu biziki onetik atera zituela gehienak eta nik beste hogeik ikusi dizkiot beste iturrietarik hartuak. Daranatzek nolaz ez Donibane Lohizunen ez zela behe nafarreraz mintzatzen, ez du konprenitzen zertako kopietan lapurtar hitzak agertzen diren. Bestalde, teologia albaitaritzako medikuntza baino hobeki ezagutzen baitzuen Lafittekin sineskeria erremedio bilduma bat bezala ikusi da.

Pauen farmazia zeukan Elhorga jaunarekin eta *Dictionnaire de la Pharmacoipée Française* liburuarekin ikusi genuen agertzen diren erremedio guziek gaur ere balio dutela. Hola erran dezakete denbora hartan kabalak jendeak baino hobeki sendatuak zirela, ezen urte haietan medikuntzako *Journal des Sçavants* delakoan zernahi sorgin eta belagile errezeta arraro irakurtzen baitira.

Nire ustez, hamazazpigarren mendeko liburuxka horrek merezi zuen argitaratzea. Alde batetik, testu bera lau euskara motatan emana izan baita, eta bestetik, kalitate onekoa baita. Nahi nuke jakin liburu horretan erraten den bezala usu ukuiluetako paretak zuritzen diren eta eritasuna sartzen denean barnean sufre errearazten eta kabalak xahuki, garbiki atxikitzen?

Euskaltzaindiak *Euskaltzainak* bilduman argitaratu dit duela 22 urte Eusko Ikaskuntzari, gero Euskal Herriko Unibertsitateari eta beste anitzi eskaini nien liburua. Eskerrak Euskaltzaindiko Argitalpen batzordeari eta langileei.

--

Le livre que nous présentons grâce à l'Académie de la Langue Basque est un recueil de 4 copies d'un reste de livre d'art vétérinaire écrit par le labourdin Mongongo Dassanza de Saint-Jean-de-Luz. L'auteur qui est signalé, dans cette ville, avec sa profession de barbier apothicaire depuis 1650 mourut en 1702. Nous ne savons pas si son livret fut imprimé, mais la dédicace et préface le définissent bien comme un labourdin témoin d'une épizootie.

Les copies de son livret rédigées dans quatre variétés de basque proviennent l'un rédigé par Jean-Pierre Peillen, de ma famille de Barcus, un second par un instituteur en basque de Saint Jean-Pied-de-Port Goihetche (le plus authentique, puisque rédigé en labourdin), un troisième du pays de Mixe rédigé par Jaureguiberry et un quatrième anonyme de Baigorri, mal édité par Daranatz.

Outre l'intérêt dialectologique, ce livre contient dans son ensemble des remèdes utilisés ou utilisables de nos jours. En effet, Dassanza s'inspira en grande partie du livre *La Maison Rustique*. En comparant à l'état de la médecine humaine à l'époque l'on peut dire que les bovins étaient mieux soignés que les humains. Ce sont deux célèbres ecclésiastiques

bascofiles dont l'un ne connaissait pas bien les dialectes de la langue basque et les deux n'avaient aucune connaissance de l'art vétérinaire qui dissuadèrent toute future publication de ces textes en prétendant que c'étaient des ramassis de superstitions. *Errare humanum est, sed perseverare diabolicum.*